



AZPEITIKO
ARGAZKI
ELKARTEA

XLIII. SOKAMUTURRA ARGAZKI LEHIAKETA "IMANOL ELIAS" SARIA

Antolatzailea: **AZPEITIKO ARGAZKI ELKARTEA**
Babeslea: **AZPEITIKO UDALA**



OINARRIAK

1. Nahi duen pertsona orok parte har dezake argazki lehiaketa honetan.
2. Gaia: **2023ko Otsailaren 19, 20 eta 21ean Azpeitian**, Inauterietako festetan ospatuko den helduen **Sokamuturra**.
3. Sokamuturra gaia **zuri-beltzean** izango da. Ezin izango da fotomuntaiarik aurkeztu.
4. Egile bakoitzak aipatutako gaiari buruz gehienez **bost argazki** aurkeztu ditzake. Sari **bakarra** lortu ahalko duelarik "sari berezia" kontutan hartu gabe.
5. Argazkiak **paperean** entregatu beharko dira (tamaina 20 x 30 zm), atzealdean, argazkiaren izenburua, egilearen izen-abizenak, helbidea eta telefono zenbakia azaldu beharko direlarik **eta CD-an ere bai. JPG formatuan.**

ARGAZKIAK AURKEZTERAKOAN, BI FORMATUETAN AURKEZTEN EZ DITUZTEN LEHIAKIDEAK, LEHIAKETATIK KANPORATUAK IZANGO DIRA

6. Lanak pakete edo sobre itxian bidali beharko dira helbide hauetara:

**Azpeitiko Argazki Elkarteak edo
Apdo. Correos 326
20730 Azpeitia**

**Azpeitiko Argazki Elkarteak
Soreasu Auzoa 1
Dinamoia Sormen Gunea – 1. Solairua
20730 Azpeitia**

7. Lanak aurkezteko epea **2023ko martxoaren 2a, osteguna, iluntzeko 22:00**etan amaituko da. (egun horretan argazkiak elkartearen egon beharko dute)

8. Honakoak izango dira sariak:

Lehenengo postua: 365 € eta garaikurra

Bigarren postua: 235 € eta garaikurra

Hirugarren postua: 200 € eta garaikurra

Laugarren postua: 120 €

Bosgarren postua: 80 €.

9. Gainera, sari berezi bat egongo da: **Iñaki Joaristi “Altzarte”, 150 € eta Plaka, Inauterietako Jai Giroari** buruzkoa argazki onenari. Hau **KOLORETAN** aurkeztu beharko da. Sari honetarako, partaide bakoitzak **bi argazki** aurkeztu ahal izango ditu, 4 eta 5 puntuetako betebeharrak jarraituz.

10. Epaimahaia Azpeitiko Argazki Elkarteak aukeratuko du.

11. **Sari banaketa, 2023ko martxoaren 18an, larunbata, eguerdiko ordu-batean**, erakusketa irekitzearekin batera, egingo da.

12. Saritutako argazkiak erakunde antolatzailearen jabetzan geratuko dira. Irabazleak ez direnak, erakusketa ixten denetik hurrengo hamabost egunetan jaso ahal izango dira Azpeitiko Argazki Elkartean.

13. Ohiturari jarraituz parte hartzaile guztiak afaltzera gonbidatuta daude, non irabazleek sariaren %25a emango duten afaria ordaintzeko, gainontzekoa norberak ordaindu beharko duelarik.

OHARRA:

AAEk, ez du bere gain hartzen ekintza garatzen den bitartean pertsonengan, argazki ekipoetan edota edozein ondasunetan sor daitezkeen kalte edota hondatzearen aurrean inolako erantzukizunik.

Ekintzan parte hartzen dutenak izango dira beren buruaren, argazki ekipoen eta ondasunen arduradun bakarrak, eta baita ekintza garatzean hirugarrengoei eta bere ondasunei sor lekizkiekeen kalteenak ere.

Ekintza honetan parte hartzeak berekin dakar arauok erabat onartzea.

Azpeitian, 2023ko otsaila